

DIRU-SARRERAK

• Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure diru-sarrerak ordainketa bakarrekoak izango dira, eta hasiera batean zerbitzu-talde bakoitzak prezio finko bat izango dute:

- Abokatu taldea: 60€/orduko
- Psikologo taldea: 50€/orduko
- Administrazio taldea: 40€/orduko

Hala ere, bezeroak deskontuak izango dituzte errentagarritasun-mailaren arabera. Hau da, laguntzak jasotzen dituen pertsona bat bada, esaterako, alarguna izateagatik laguntzak jasotzen baditu edota hilean jasotzen duen dirua (errenta hobeto) baxua bada, baldintza horien araberrako deskontuak ezarriko zaizkie ordainketarako orduan. Adibidez, hurrengo egoerak gertatu daitezke:

- Laguntza sozial orokorrak: **%25eko deskontua**
 - Larrialdi soziala
 - Pobrezia energetikoa
 - Hurren pobrezia
 - Txandakatzeko ostatuak

- Laguntza sozial espezializatuak: **%50eko deskontua**
 - Pertsona nagusiak
 - Adingabeak
 - Dibertsitate funtzionala duten pertsonak
 - Etxebizitzak
 - Bono sozial termikoa

Hala ere, diruz oso larri dauden pertsonak, gure laguntza bai edo bai behar badute, **doainik** izateko aukera izango dute. Hauen zerbitzua ordaintzeko, beste bezeroengandik lortutako etekinak erabiliko ditugu. Hala ere, lehenengo urtean agian ez dugunez etekin handirik izango, kuota txiki bat ordaindu behar izango dute, guk gure gastuak kubritzeko behintzat, gero doainiko zerbitzu hori jaso ahal izateko.

